

Sagarrondotik 2004, sagardoaren kultura gaurkotzeko egingo den bigarren jaialdia

Realeko jokalaria eta ordezkariak
Urnietan omenaldia egin eta Oilalume sagardotegian afora emango diete

Hilaren 26an Urnietan Realari egingo zaion omenaldiarekin abiatu eta hiru egunetan zehar bereziki musika kontzertuak, herri kirolak eta sagardoaren inguruko ekitaldiak elkartzen dituzten egitaraua antolatu dute Urnieta, Hernani,

Astigarraga eta Usurbilgo udalerriek. Antolatuzaileen izenean Jon Garmendiak esan zuenez, sagardoaren kultura gaurkotu eta ezagutzera ematea da Sagarrondotik 2004 jaialdiaren helburu nagusia.

Joxean AGIRRE
DONOSTIA

Hamabi mila lagun har ditzaketen karpia erraldoia Hernanin, bi musika jaialdi handi, Realeko futbol taldeari omenaldia Urnietan, herri kirolen erakustaldia eta Euskal Herri osoko 60 sagardoazale elkartuko dituen mostra Usurbilen, pare bat sagardo dasta, dantza, bertsolariak eta trikitia izango dira aurtengo hilaren 20tik 29ra bitartean Sagarrondotik 2004 jaialdia girotzeko antolatu dituzten ekitaldiak. Helburua? Sagardoaren kultura gaurkotzea.

«Jaialdi hau iaz sortu genuen, sagardoaren inguruko kultura-ren edo munduaren bilgune eta ispilu izateko asmoarekin. Sagardoaren kultura, guk ulertzen dugun eran, sagardoaren inguruan mendeetan bildu den kultura eta euskal izate bat da», esan zuen Jon Garmendiak, jaialdiaren koordinatzaileak. Kultura horren adierazpenen artean bertsoa, herri kirolak, olerkia, musika, dantza eta jai giroa aipatu zituen.

«Jaialdi honek sagardoaren mundu horretan eragile diren guztiei eman nahi die protagonismoa -jarraitu zuen Garmendiak- sagardo egileengandik hasi eta elkarte, kofradia eta modu horretako taldeak arte».

Sagardoaren lurraldea

Urnieta, Hernani, Astigarraga eta Usurbilek osatzen dute «sagardoaren lurraldea», Garmendiak esan zuenez, eta lau udalerri horiek dira egitarauko ekitaldia bere baitan hartuko dutenak.

Atzoko aurkezpenean, Realeko Igor Gabilondo, Igor Jauregi eta marketin arduradun Karmele Zubillagaz gainera, udalerri horietako sagardo egileen ordezkariak izan ziren. Bertan ziren Kristina Gofii Kofradiako lehendakaria eta Joxe Anjel Gaztañaga Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen lehendakaria. Florentino Ugalde Urnieta-ko alkatea, Ibon Beristain Usurbilgo Kultura zinegotzia eta Beatriz Fernandez Hernaniko Kultura zinegotzia ere han izan ziren.

Ruper Ordorikaren omenaldiarekin hasi ziren jaialdia, urtarrilaren 24an, Hernanin, baina hilaren 26an zabalduko da egitaraua Urnietako Saroben sagardo egileek Realari egingo dioten omenaldiarekin. «Sagardoaren mezularia deitzen den



Realeko Igor biak, Gabilondo eta Jauregi ezkerrean eta Jon Garmendia, sagardo egileen eta udalen ordezkariak atzoko aurkezpenean.

ikur bat emango zaio Realeko futbol taldeari. Iaz, itxi berria zen 'Euskaldunon Egunkaria'ri eman zitzaion Juan Gorritik egindako ikur hori. Aurten, Realari emango zaio, iazko denboraldiaren ondoren Euskal Herriaren izena Europan barrena zabaltzeko egin duen lanagatik bereziki», esan zuen Garmendiak. Omenaldiaren ondotik, Kirmen Uribe poetak, Mikel

Urdangarinek eta beren taldeak "Zaharregia, txikiegia agian" ikuskizuna emango dute. Ondoren, Oilalume sagardotegian afora izango da Realeko jokalaria eta ordezkariak.

Jaialdiak lau agertoki nagusi izango ditu: Hernaniko karpia erraldoian bi kontzertu handi eratuko dira hilaren 27an eta 28an. Bigarren kontzertuan, Fermin Muguruzak & Kontra-

bandak izango du protagonismo nagusia. Garmendiak esan zuenez, karpia txikiagoak jarriko dira bilduko den jendetzari jaten eta edaten emateko. Usurbilgo plazan lau udalerrien arteko lehia jokatuko da eta herri kirolen arituko dira (txingak, sagar biltzea, zaku lasterketa, ingudea, aizkora, trontza, harri jasotzea eta sokatira). Hilaren 28an eta hilaren 29an Astiga-

rragan egingo den Sagardo Mostra eginez bukatuko da jaialdia. Euskal Herriko 60 sagardo egile biltzea espero dute eta sagardoaren museo ibiltaria, dantza emanaldia, bertsolariak eta trikitia izango dira. Realaren izenean Igor Jauregi mintzatu zen atzo, eskerrak eman eta antolatzaileen zoriondu ondoren, hilaren 26ra arte agurtu zituen bertan zeudenak.

BI MUSIKA JAIALDI, DANTZA, BERTSOA ETA OMENALDI BAT

Sagarrondotik 2004k bi musika jaialdi ikusgarri eta sagardoarekin edo euskal kulturarekin loturik dauden ekitaldiak uztartuko ditu bere egitarauan.

Otsailak 20. Urnieta • 21.00etan sagardo dasta Santa Kruz elkarteak, Xabier Kamio enologoak iruzkindua.

Otsailak 26. Urnieta • 20.00etan Harrera ekitaldia Sarobe Kultur zentroan: sagardo egileak, kofradiak

eta elkarteak. Real Sociedad futbol taldeari Sagardoaren Mezulariak ikurra emango diote, Europan zehar Gipuzkoaren izena zabaltzen ari delako. Ondoren, "Zaharregia, txikiegia agian" olerki eta musika emanaldia.

Otsailak 27. Hernani • 22.30ean musika jaialdia karpia erraldoian. Fito & Fitipaldis (Euskal Herria), Reincidentes (Andaluzia), Su ta Gar (Euskal Herria) eta Orisha's. Karpak 12.000 lagun har ditzake.

Otsailak 28. Usurbil • 17.00etan herri kirolen lehia plazan. Astigarraga, Urnieta eta Usurbilgo taldeak. Ondoren sagardo dasta.

Otsailak 28. Hernani • 22.00etan musika jaialdia karpia erraldoian: Ari (Madrid), Kuraia (Euskal Herria), Ojos de Brujo (Katalunia) eta Fermin Muguruza & Kontrabanda (Euskal Herria).

Otsailak 29. Astigarraga • Euskal Herriko 60 sagardo egileren mostra eta Euskal

Herriko produktuen azoka. Sagardoaren museo ibiltaria. 11.00etan dasta Xabier Kamio eta Domingo Arina enologoek iruzkindua. 13.30ean Patxi Perez eta Ipar Euskal Herriko dantzarien "Dantza piko" ikuskizuna. Astigarraga eta Hernaniko dantza taldeak izango dituzte laguntzen. 17.00etan Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Aitor Mendiluze eta Maialen Lujanbio arituko dira bertsoan eta ondoren trikitilariak izango dira.